IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

# HAUTANET

## APLIKAZIOAREN KUDEAKETA

*EPAIMAHAIKIDEAK*



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1. Sartu IVAPeko web orrian: http://www.ivap.es
2. Egin ezazu klik **HAUTANET** gunean.




3. Egin klik berriro, **Hautanet sarbide barruan**, **Epaimahaietako kideentzako** atalean.



4. Sartu **erabiltzailea** (NAN zenbakia, letra barik) eta jaso duzun **pasahitza** (**Nire datuak** gunean alda dezakezu pasahitza). Pasahitza ahaztu bazaizu, egin ezazu klik esaten den lekuan eta zure posta elektronikoan jasoko duzu.




Hau da zure gunea:

- **Nire datuak** gunean agertzen da gure Datu Basean daukagun informazioa, zuri buruzkoa. Hemen duzu aukera informazio hori ikusi eta aldatzeko, zuzena ez bada; pasahitza ere alda dezakezu leku honetan.
- **Nire hautaketa-prozesuak** gunean agertuko dira zuri dagozkion prozesu guztiak.
- **Lankidetzagunean** hainbat dokumentu eta esteka interesgarri aurkituko duzu.



Zure datuak eta pasahitza ikusi edota zuzentzeko, sar zaitez **Nire datuak** gunean:




Zure prozesuak ikusteko egin clik **Nire hautaketa-prozesuak** gunean.



Kontsultatu nahi duzun **prozesuan** sakatuta, hurrengo pantaila agertuko da:




Espedienteari dagozkion dokumentuak (oinarriak, gastuen kitapena....) ikusi nahi izanez gero, sakatu **Dokumentuak** gunean:



Kontsulta bat egin nahi baduzu, sakatu **Komunikazioak**, gero, izartxo duten lekuak bete eta, behar izanez gero, fitxategiak gehitu (**Igo**); bukatzeko, sakatu ‘**Igorri**’ kontsulta bidaltzeko.




Erantzuten dutenean, mezu bat jasoko duzu zure helbide elektronikoan. Erantzuna ikusteko sar zaitez **Komunikazioak** gunera.



**Lankidetzagunean** aurkituko duzu informazio interesgarria, eta zeuk ere bidali ahal izango dituzu kideentzako informazio eta artxibo interesgarriak aplikazio honen bidez.

